Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

GIZARTE ZERBITZUETAN ERREALITATE BERRIRA EGOKITZEKO PLANA

Gizarte Politiketako Departamentua

Donostia, 2020ko maiatza

HELBURUA

Bermatzea foru eskumeneko zerbitzuen prestazioa pixkanaka berreskuratuko dela, era koordinatu, antolatu, koherente eta prebentiboan, erreferentzia gisa harturik zerbitzuak eskuratzeko bermea, eskubide unibertsal gisa, eta osasun publikoaren babesa.

Aplikazio orokorreko printzipioak eta irizpideak

- Bermatu egingo da zerbitzuak eskuratuko direla, eskubide unibertsal gisa eta jarduteko oinarrizko printzipio gisa.
- Onartu egingo dira agintaritza sanitarioak ezarritako segurtasun eta higiene neurri orokorrak.
- Lehentasuna emango zaio pertsonen segurtasunari beste edozein faktoreren gainetik.
- Baliabideak egokitu egingo dira oraingo eta etorkizuneko beharrak estaltzeko, normaltasun berriaren testuinguruan.
- Epe ertaineko epemuga (18 hilabete)
- Aurreko faseetara itzultzeko posibilitatea dago, segurtasun sanitarioagatik.
- Lehentasuna emango zaio zerbitzuen prestazio telematikoari, ahal izanez gero.
- Segurtasun tartea bermatu ezin den kasuetan, elementu fisikoak erabiliko dira.
- Entitate kudeatzaile bakoitzak bere protokoloak ezarri beharko ditu, bere profesionalen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatuz.

MENDEKOTASUNA (1)

ZERBITZUA	0 FASEA (maiatzaren 10era arte)	1. FASEA (maiatzaren 24ra arte)	2. FASEA (ekainaren 7ra arte)	3. FASEA (ekainaren 21era arte)	4. FASEA (uztailaren 4ra arte)	GOMENDIOAK
Mendekotasunaren balorazioa (MBB/BBE eta RAI)	Balorazio ez-presentzialak	Berriro hasiko da balorazio berriak egiten etxebizitzetan (NBEak eta testa)	Pixkanaka hasiko dira gradu berrikuspenen balorazioak			
Etxez etxeko laguntza zerbitzua (udal eskumena)	ELZ mantenduko da	Etxebizitzetan berriz hasiko da etendako ELZ (NBEak eta testa)	Paseatzeko zerbitzuak baimendutako ordutegietan	Intentsitate bereziko ordutegia duen ELZ ere eskainiko zaie mendekotasun handia dutenei		Gobernuko protokoloaren arabera. Udal eskumena
Eguneko zentroak adinekoentzat	Erabiltzaileen jarraipena telefonoz	Zentroek kontingentzia plana prestatuko dute. Laguntza emateko esku hartzeak etxebizitzetan. Errefortzuarekin amaitu egoitza zentroetan	Zentroak egokitu eta gainbegiratuko dira	Pixkanaka irekiko dira egokitutako zentroak, PCR negatiboa eman ondoren, departamentuaren adostasunaren ondoren eta lehentasuna emango zaie egoitzetan kokatuta ez dauden zentroei.		
Mendekotasun egoeraren prebentzioa eta Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzua (APSZ)	Arreta telefonoz eta online		Zentroak eta instalazioak egokituko dira	Pixkanaka irekiko dira egokitutako zentro eta instalazioak, departamentuaren adostasuna jaso ondoren.		
Egoitza zentroak adinekoentzat	Kontingentzia planak baloratuko dira Aplikatu egingo dira zentroen antolamendu prebentiboari buruzko jarraibideak Zerbitzua indartuko da eguneko zentroetako plantillekin Familiartekoei bermatuko zaie bizitzaren amaierako bisita humanitarioak egingo direla ez kasu positiborik ez susmagarririk ez duten zentroetan, babes neurri handiekin	Etengabe berrikusi eta egokituko dira kontingentzia planak Amaitu egingo da eguneko zentroen laguntza Zentroak eta instalazioak egokituko dira egoiliar berrientzat Bisitetarako guneak prestatuko dira, eta Departamentuaren oniritzia Egoiliar autonomo eta mendeko arinen bizikidetzako jarduerak lehenetsiko dira Hasi egingo dira egoiliarren bisita humanitarioak, haien deskonpensazio neurokognitiboa arintzeko, aldez aurretik medikuaren agindua dagoela, ez kasu positiborik ez susmagarririk ez duten zentroetan, aurretiko hitzorduarekin eta babes neurri handiekin	Hasi egingo da bizikidetzako eta taldeko normaltasun berria modulu eta talde txiki iraunkorretan sektorizatuta eta segurtasun distantziak mantenduz. Irteerak terrazetara eta lorategietara. Posible den zentro horietan, eta aurretiko hitzorduarekin, egoiliarren eta beren familiartekoen arteko ikusizko kontaktua aldeztuko da kanpoko espazio komunetatik	Egoitzak ireki egingo dira egoiliar berrientzat, PCR negatiboa badute eta aurrez isolamendua egin badute. Itzuli egingo dira etxeetara joan direnak, PCR negatiboa badute eta aurrez isolamendua egin badute. Hasi egingo dira familiarteko bat/egoiliar baten arteko bisita programatuak, babes neurri handiekin. Departamentuaren adostasuna jaso ondoren.	Hasi egingo dira bi familiarteko/egoiliar baten arteko bisita programatuak, babes neurri handiekin Familiartekoekiko bideodeiak mantenduko dira, Besarkada Birtualak ekimenaren bitartez	Erabiltzaileen irteerak eta boluntariotzako jarduerak etetea. Komeni da prestakuntzako jarduerak egitea zentroetako langileentzat, babes eta segurtasun neurriei buruz Komeni da aldizkako testak egitea egoiliarrei eta zentroetako langileei

MENDEKOTASUNA (2)

ZERBITZUA	0 FASEA (maiatzaren 10era arte)	1. FASEA (maiatzaren 24ra arte)	2. FASEA (ekainaren 7ra arte)	3. FASEA (ekainaren 21era arte)	4. FASEA (uztailaren 4ra arte)	GOMENDIOAK
Eguneko egonaldiak	Zerbitzurik ez					
Aldi baterako egonaldiak	Zerbitzurik ez					
Helduen tutoretza zerbitzua	Tutoretzapeko pertsonen jarraipena telefonoz	Etxez etxeko bisitak eta konpainia zerbitzua Tramite judizialak prestatuko dira	Jarduera normalizatua, salbu eta zerbitzu mugakideen (egoitzak bisitatzea...) mugei dagokienez			
Laguntza teknikoak	Zerbitzu urgenteak	Pixkanaka hasiko da jarduera normalizatua				
PRESTAZIO EKONOMIKOAK MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAT	Adineko pertsonen jarraipena telefonoz, udalaren zerbitzuen bitartez.			Amaitu egingo da mendeko adinekoen telefono bidezko jarraipena	Hasi egingo da mendeko adinekoen jarraipen presentziala Murrizketak aplikatuko dira zerbitzuen bateragarritasunagatik	

DESGAITASUNA ETA GAIXOTASUN MENTALA (1)

ZERBITZUA	0 FASEA (maiatzaren 10era arte)	1. FASEA (maiatzaren 24ra arte)	2. FASEA (ekainaren 7ra arte)	3. FASEA (ekainaren 21era arte)	4. FASEA (uztailaren 4ra arte)
Desgaitasunaren balorazioa	Balorazio ez-presentzialak eta ziurtagirien luzapen automatikoa	Pixkanaka hasiko dira desgaitasunaren eta mendekotasunaren baterako balorazioak etxeetan Jarraitu egingo da 0 faseko tramitazio telematikoarekin Berrikusi egingo dira balorazio zentroak irekitzeko baldintzak		Hasi egingo dira eskaera berrien balorazio presentzialak	Hasi egingo dira berrikuspenen balorazio presentzialak eta amaitu egingo dira luzapen automatikoak
Eguneko zentroak desgaitasunen bat duten pertsonentzat	Erabiltzaileen jarraipena telefonoz	Zentroek kontingentzia plana prestatuko dute Laguntza emateko esku hartzeak etxebizitzetan (larrialdi kasuetan, beste espazio batzuetan laguntzeko aukera, Departamentuak oniritzia eman ondoren Errefortzuarekin jarraitu egoitza zentroetan eta etxebizitzetan.	Zentroak egokitu eta gainbegiratuko dira	Pixkanaka irekiko dira egokitutako zentroak PCR negatiboa eman ondoren eta lehentasuna izango dute etxean dauden erabiltzaileak eta departamentuaren adostasuna izan beharko dute.	
Eguneko zentroak gaixotasun mentalen bat duten pertsonentzat	Erabiltzaileen jarraipena telefonoz	Zentroek kontingentzia plana prestatuko dute. Laguntza emateko esku hartzeak etxebizitzetan. Errefortzuarekin jarraitu egoitza zentroetan eta etxebizitzetan.	EPZ eta aisialdi zentroak egokitu eta gainbegiratuko dira	Pixkanaka irekiko dira egokitutako zentroak departamentuaren adostasunarekin. Aisialdia, EPZren antzeko tratamendua	
Mendekotasun egoeraren prebentzioa eta Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzua (APSZ)	Arreta telefonoz eta online	Etxez etxeko jarduerak pixkanaka hasteko aukera .	Zentroak eta instalazioak egokituko dira	Pixkanaka irekiko dira egokitutako zentro eta instalazioak, departamentuaren adostasuna jaso ondoren.	
Arreta goiztiarra	Arreta ez-presentziala	Etxez etxeko laguntza Larrialdietan AGETk zerbitzua etxean eskaintzeko aukera. Kontingentzia planak prestatuko dituzte AGETk. Zentroak eta instalazioak egokitu eta gainbegiratuko dira		Zentroak irekiko dira	
Tutoretza zerbitzua	Tutoretzapeko pertsonen jarraipena telefonoz. .	Etxez etxeko bisitak eta konpainia zerbitzua. Tramite judizialak prestatuko dira	Jarduera normalizatua, salbu eta zerbitzu mugakideen (egoitzak bisitatzea...) mugei dagokienez		

DESGAITASUNA ETA GAIXOTASUN MENTALA (2)

ZERBITZUA	0 FASEA (maiatzaren 10era arte)	1. FASEA (maiatzaren 24ra arte)	2. FASEA (ekainaren 7ra arte)	3. FASEA (ekainaren 21era arte)	4. FASEA (uztailaren 4ra arte)
Egoitza zentroak desgaitasunen bat duten pertsonentzat	Kontingentzia planak baloratuko dira Aplikatu egingo dira zentroen antolamendu prebentiboari buruzko jarraibideak Zerbitzua indartuko da eguneko zentroetako plantillekin	Etengabe berrikusi eta egokituko dira kontingentzia planak Eguneko zentroen zerbitzua indartzen jarraituko da Zentroak eta instalazioak egokituko dira egoiliar berrientzat Guneak prestatuko dira familiartekoek zentrora bisitak egiteko Hasi egingo dira paseo gainbegiratuak, behar psikoafektiboak arintzeko, medikuaren aginduz	Hasi egingo da bizikidetzako eta taldeko normaltasun berria modulu eta talde txiki iraunkorretan sektorizatuta Itzuli egingo dira etxeetara joan direnak, PCR negatiboa badute eta aurrez isolamendua egin badute. Hasi egingo dira familiarteko bat/egoiliar baten arteko bisitak, sarbide independentea duten zentroetan, eta babes neurri handiekin.	Egoitzak ireki egingo dira egoiliar berrientzat, PCR negatiboa badute eta aurrez isolamendua egin badute. Paseoekin hasi murrizketekin, (denbora, laguntza, segurtasun neurriak eta higienea…) Hasi egingo dira familiarteko bat/egoiliar baten arteko bisitak gainerako zentroetan, babes neurri handiekin. Jarduketa guztiak departamentuaren adostasuna jaso beharko dute.	Hasi egingo dira bi familiarteko/egoiliar baten arteko bisitak, babes neurri handiekin
Desgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzak	Zerbitzua indartuko da eguneko zentroetako plantillekin	Jarraitu egingo da eguneko zentroen laguntzarekin Ireki egingo dira alarmaren aldian itxitako etxebizitzak eta haietara pixkanaka itzuliko da (PCR negatiboarekin), departamentuaren adostasuna jaso ondoren. Paseo gainbegiratuak eta mugatuak (denbora, akonpainamendua, segurtasun eta higiene neurriak…)	Etxeetara joan direnen itzulera osatuko da, PCR negatiboa badute eta aurrez isolamendua egin badute.	Hasi egingo da eguneko jarduera	
Aldi baterako egonaldiak	Zerbitzurik ez				

DESGAITASUNA ETA GAIXOTASUN MENTALA (3)

ZERBITZUA	0 FASEA (maiatzaren 10era arte)	1. FASEA (maiatzaren 24ra arte)	2. FASEA (ekainaren 7ra arte)	3. FASEA (ekainaren 21era arte)	4. FASEA (uztailaren 4ra arte)
Egoitza zentroak gaixotasun mentalen bat duten pertsonentzat	Kontingentzia planak baloratuko dira Aplikatu egingo dira zentroen antolamendu prebentiboari buruzko jarraibideak Zerbitzua indartuko da eguneko zentroetako plantillekin	Etengabe berrikusi eta egokituko dira kontingentzia planak . Jarraitu CRPS guztien errefortzuarekin. Egoitza zentro nagusitik sarbidea erabat independentea eta bereizita duten URTMSetan paseoak hasi daitezke murrizketekin (denbora, laguntza, segurtasun neurriak eta higienea…). Zentroak eta instalazioak egokituko dira egoiliar berrientzat	Hasi egingo da bizikidetzako eta taldeko normaltasun berria modulu eta talde txiki iraunkorretan sektorizatuta Itzuli egingo dira etxeetara joan direnak, PCR negatiboa badute eta aurrez isolamendua egin badute. Hasi egingo dira familiarteko bat/egoiliar baten arteko bisitak, babes neurri handiekin. Jarduketa guztiek departamentuaren adostasuna jaso beharko dute.	Egoitzak ireki egingo dira egoiliar berrientzat, PCR negatiboa badute eta aurrez isolamendua egin badute. Paseoak hasi daitezke murrizketekin (denbora, laguntza, segurtasun neurriak eta higienea…).	Hasi egingo dira bi familiarteko/egoiliar baten arteko bisitak, babes neurri handiekin
Gaixotasun mentalen bat duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzak	Zerbitzua indartuko da eguneko zentroetako plantillekin	Jarraitu CRPSen errefortzuarekin. Ireki egingo dira alarmaren aldian itxitako etxebizitzak eta haietara pixkanaka itzuliko da (PCR negatiboa badute), departamentuaren adostasuna jaso ondoren. Paseoak hasi daitezke murrizketekin (denbora, laguntza, segurtasun neurriak eta higienea…). .	Etxeetara joan direnen itzulera osatuko da, PCR negatiboa badute eta aurrez isolamendua egin badute.	Hasi egingo da eguneko jarduera	
Programa psikosozial komunitarioa	Jarraipena telefonoz	Pixkanaka hasiko dira etxez etxeko bisitak edo kalekoak	Jarraitu egingo da normalizazio prozesuarekin	Egoera berriko erabateko normalizazioa	

GIZARTERATZEA ETA INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK

ZERBITZUA	0 FASEA (maiatzaren 10era arte)	1. FASEA (maiatzaren 24ra arte)	2. FASEA (ekainaren 7ra arte)	3. FASEA (ekainaren 21era arte)
Gizarte bazterketaren balorazioa		Txostenak telematikoki egingo dira. Hasi egingo dira balorazio presentzialak aurretiazko hitzorduarekin Balorazioak egingo dira baliabideetan	Pixkanaka areagotuko dira aurretiazko hitzordu presentzialak	Jarduera normalizatua
Eguneko zentroak gizarte bazterketan dauden pertsonentzat	Arreta indibiduala eta taldekoa telefonoz eta telematikoki Hasi egingo da arreta presentzial indibidualizatua aurretiazko hitzorduarekin	Hasi egingo dira 10 pertsonara bitarteko talde jarduerak Eguna jarriko zaie sartuko diren egoiliar berriei eta irtengo direnei	Partzialki irekiko dira Eguneko Arretako Zentroak. Departamentuaren adostasuna jaso ondoren. Hasi egingo dira egoiliar berrien sarrerak eta egoiliarren irteerak	Talde profesionalek arreta normalizatua emango dute
Zentro okupazionalak	Arreta indibiduala eta taldekoa telefonoz eta telematikoki	Hasi egingo dira 10 pertsonara bitarteko talde jarduerak Eguna jarriko zaie sartuko diren egoiliar berriei eta irtengo direnei	Partzialki irekiko dira Zentro Okupazionalak . Departamentuaren adostasuna jaso ondoren. Hasi egingo dira egoiliar berrien sarrerak eta egoiliarren irteerak	Martxan jarriko dira Zentro Okupazionalak Talde profesionalek arreta normalizatua emango dute
Arreta psikosoziala eta soziojuridikoa genero indarkeriaren biktimentzat		Hasi egingo dira arreta presentziala prestatzen Ezarri egingo dira hitzordu presentzialak kudeatzeko sistemak hurrengo faseetarako	Pixkanaka berriz hasiko da presen-tzialtasuna, lehentasuna emanez aurrez zerbitzuen erabiltzaileak ziren emakumeei Arreta presentziala emakumeei, baldin eta lehen aldiz behar badute krisi sanitarioaren ondorioz	Bermatu egingo da arreta presentziala, lehentasuna emanez biktima diren haurren arretari Talde profesionalek arreta normalizatua emango dute
Egoitza zentroak gizarte bazterketan dauden pertsonentzat		Sarrera eta irteera urgenteenak egingo dira. Egituratu eta planifikatu egingo dira gainerako irteerak/aurreikusitako baliabideen altak. Koordinatu egingo da udalekin eta osasun mentalarekin	Martxan jarriko dira egoiliar berrien sarrerak eta egoiliarren irteerak . departamentuaren adostasuna jaso ondoren	Mantendu egingo dira etxerik gabeko pertsonentzat konfinamenduan sortutako ostatu plazak Talde profesionalek arreta normalizatua emango dute
Egoitza zentroak genero indarkeriaren biktimentzat		Sarrera eta irteera urgenteenak egingo dira. Planifikatu egingo dira irteerak/aurreikusitako baliabideen altak.	Martxan jarriko dira egoiliar berrien sarrerak eta egoiliarren irteerak . departamentuaren adostasuna jaso ondoren Berreskuratu egingo da emakumezko biktimen mugikortasuna	Mantendu egingo dira alarma egoeran aurreikusitako ostatu baliabideak Talde profesionalek arreta normalizatua emango dute
Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzea eta laguntzea gizarte inklusioko ibilbideetan	Mantendu egingo dira gizarte eta hezkuntza arloko laguntza neurriak era telematikoan Arreta presentziala urgentzia kasuetan	Konbinatu egingo da online laguntza modalitatea arreta presentzialarekin Areagotu egingo da arreta presentziala aurretiazko hitzorduarekin	Hasi egingo dira esku hartze presentzial indibidualak, oro har	Normalizatu egingo da gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzea eta lagundu egingo da gizarte inklusioko ibilbideetan normaltasun berrian

HAURRAK BABESTEA

ZERBITZUA	0 FASEA (maiatzaren 10era arte)	1. FASEA (maiatzaren 24ra arte)	2. FASEA (ekainaren 7ra arte)	3. FASEA (ekainaren 21era arte)	4. FASEA (uztailaren 4ra arte)
Esku hartze familiarren programak		Hasi egingo dira aurrez aurreko eta etxez etxeko esku hartzeak, baita bulegokoak ere. Programen eta taldeen altak eta bajak Profesionalen aurkezpen bilerak telematikoak izango dira lehentasunez eta salbuespen gisa presentzialak		Martxan jarriko dira taldeko ekintzak (10 pertsonatik behera)	Jarduera normalizatura eta, hala dagokionean, egokitura itzuliko da
Egoitza harrera		Egoitza baliabideen arteko lekualdatzeak Bisitak gune irekietan (maiatzak 18)	Lekualdatzeak Ubatik eta Ategorrietatik beste egoitza baliabide batzuetara	Altak eta bajak Bisitak zentroetan departamentuaren adostasuna jaso ondoren	Jarduera normalizatura eta, hala dagokionean, egokitura itzuliko da
Familia harrera		Hasi egingo dira harrera familia esleituta duten haurren moldatze prozesuak Altak eta bajak hainbat familia modalitateren artean Bisitak gune irekietan (maiatzak 18)		Hasi egingo dira bisitak topagune berrian	Jarduera normalizatura eta, hala dagokionean, egokitura itzuliko da
Adopzioa		Balorazio telematikoa Hitzordu presentzialak familiekin edo beste profesional batzuekin behar-beharrezkoa denean bakarrik	Bisitak etxeetara egokitasun balorazioak egiteko, ahalik eta gutxien egiten saiatu beharko da	Jarduerak talde txikietan, prestakuntza Talde txikitan antolatutako prestakuntza saioak planifikatuko dira (gehienez 10 pertsona)	Jarduera normalizatura eta, hala dagokionean, egokitura itzuliko da
Haurren babesgabetasunaren balorazioa eta orientazioa		Hasi egingo da balorazio presentzialekin Familien agerraldiak babesgabetasun egoeratarako eta tutoretza urgenteak eta ezinbestekoak egingo dira	Familien agerraldiak jakinarazpen presentzialerako	Hasi egingo dira hitzordu presentzialak Profesionalen arteko bilerak telematikoak izango dira, lehentasunez	Jarduera normalizatura eta, hala dagokionean, egokitura itzuliko da